



Komiki baten proiektua

Komikiaren proiektuak helburu du ikasleak gidatzea komikien bidez esploratzera eta beren burua eta ingurunea adieraztera. Helburu du, halaber, ikasleek ikusizko baliabideak eta informazioa eta ideiak sortzeko eta aurkezteko beste modu batzuk erabil ditzaten sustatzea. Horretaz gain, egile-eskubideen oinarrizko kontzeptuak errepasatu eta ekoizpen pertsonalean aplikatzeko ere bada proiektua.

Proiektuak ezagutza-sorta zabalarekin du zerikusia. Ikasturte eta irakaskuntza-maila guztietarako ikasketa-planen helburuen eta edukien barruan daude multialfabetizazioa, pintura eta hizkuntza bidezko ekoizpena, askotariko testuak erabiltzea eta interpretatzea, eta egile-eskubideen printzipioak ulertzea eta aplikatzea. Proiektuan, taldean lan egin daiteke zenbait irakasgaireren artean. Proiektua egokia da, bereziki, ikusizko arteak eta hizkuntza eta literatura irakasteko.

Norentzat da? Lehen Hezkuntzarako, DBHrako, Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako
Iraupena: 2-3 eskola.

Zer behar da?

- Aldizkariak edo komikien argitalpenak.
- Materialak bilatuko dira, eta Egile Eskubideen Ikasgelako jolasak egingo dira ordenagailu, tableta edo telefono mugikorretan.
- Papera.
- Marrazketarako tresnak: arkatzak, punta fineko errotuladorea, ezabagailua, erregela, errotuladoreak, zurezko pinturak, akuarelak eta abar, komikia koloreztatzeko.
- Ordenagailuaren bidez ere marraztu dezakezu komikia.

Gaiarekin lotutako tresnak hemen daude:

- Komiki-sortzaileen bideoa Egile Eskubideen Ikasgelan.
- Egile Eskubideen Ikasgelako onlineko materiala (egile-eskubideei buruzko jolasak, laburpenak eta irakaslearentzako materialak).
- Laburpenak egiteko makina.

Ikasketa-helburuak:

- Ikaslea gidatzea pintura bidez komunikatzeko moduak ezagut ditzan eta ikusizko eragina duten bitartekoak erabil ditzan bere lanean.
- Ikasleak animatzea testuak ekoiztera eta erabiltzera, eta beren oharrak eta ideiak pintura-ekoizpenaren bidez adieraztera.
- Ikasleak animatzea beren hizkuntza-gaitasuna eta irudimena garatzera pintura eta hizkuntza bidezko adierazpenaren bidez.
- Ikasleak animatzea zenbait teknika probatzera eta ikusizko eta hizkuntzazko askotariko adierazpen-moduak praktikatzera.
- Egile-eskubideen oinarrizko printzipioak eta egile gisa berek dituzten eskubideak ulertzen eta beste norbaiten obrak egile-eskubideak errespetatuz erabiltzen ikastea.

1 GAIA IREKITZEA ETA GAIA AUKERATZEA

Komikia egile-eskubideek babestutako literaturako eta ikusizko arteetako obra da. Egileak bere komikiagatik jasotzen ditu egile-eskubideak, eta editoreak ere eskubideak izango ditu.



Zer esan nahi dute egile-eskubideek?


Egile-eskubideek esan nahi dute egile zaren aldetik erabaki dezakezula sortu duzun obra nola partekatu edo argitaratu nahi duzun eta nola erabil dezaketen beste pertsona batzuek. Egile-eskubideei esker, sormen-lanen egileek (idazle, aktore, abeslari, konpositore eta ikusizko artistak, besteak beste) konpentsazioa jaso dezakete egindako lanagatik, eta lan berriak sortu ahal izango dituzte lan horiek goza ditzagun. Egile-eskubideei buruzko informazio gehiago aurki dezakezu *Ikasgelako egile-eskubideei buruzko informazioa* atalean.

Zer da komikia?

Komikian, irudia, testua eta istorioa uztartzen dira. Pertsonaia abenturazalea izaten da. Komikia bineta batetik bestera doa aurrera egiten. Normalean, ezkerretik eskuinera irakurtzen da. Japoniako manga komikiak (Espainian ere ospetsuak dira) eskuinetik ezkerrera irakurtzen dira.

Atazak:

1. Eztabaidatu zer den komiki bat eta zer esan nahi duen komiki-sortzaile batek bere komikiaren egile-eskubideak lortzeak.
2. Bilatu bost komiki eta komiki-liburutan nork dituen komiki horien egile-eskubideak.
3. Idatzi gutun bat zure komiki-sortzaile gogokoenari. Argitaletxearen bidez jar zaitezke berarekin harremanetan; autore askok beren orrialde pertsonalak ere badituzte, eta han aurki dezakezu haien helbide elektronikoa. Galde iezaiozu zer esan nahi duten autore-eskubideek berentzat. Beste aukera bat da ikastalde osoak batera idaztea egileari.
4. Ikasi egile-eskubideak Egile Eskubideen Ikasgelako jolasetan arituz. Egile Eskubideen Ikasgelan, joko egokiak daude irakaskuntza-maila eta ikasturte bakoitzerako.
5. Pentsatu gaiak zeure komikirako. Etixerako lana ere izan daiteke gaiak aukeratzea.



2 IDEIA-JASA ETA GIDOIA // ISTORIOA SORTZEA

Komiki bat diseinatzeko, lehenengoa bilbearen eta istorioaren garapena da, baita pertsonaia sortzea ere. Komikian, pertsonaiak pertsonak, animaliak, maitagarrien ipuinetako izakiak edo ia edozer izan daitezke.

Lehenik, istorioaren gidoi bat idazten da (sinopsia). Istorioak hasiera bat izango du (nola hasten den guztia), erdiko zati bat (egoera iraultzen da, sorpresa bat) eta amaiera bat (nola amaitzen duen guztiak). Hori binetetan jarriko da komikian.


Atazak:

1. Aztertu nolakoa den zure pertsonaia eta zer nortasun duen. Marraztu espresio eta jarrera batzuk zure pertsonaiarentzat. Zure pertsonaia ahoz ere deskriba dezakezu.

Aholkua: Begiratu komikietako zenbait liburu eta aldizkari. Hausnartu elkarrekin nola irudikatzen diren protagonistak edo pertsonaiak haietan: adibidez, zer espresio eta keinu dituzten, nola islatzen diren mugimenduak, zer elkarrizketa-zeinu eta -globo erabili diren, eta noiz den adierazgarria irudia bera eta ez den globorik behar.

2. Pentsatu zeri buruzkoa izango den zure komikia. Ideia-mapa bat egin dezakezu, edo ideia-jasa bat marraztuz. Adibidez, egin itzazu gaiari buruzko banakako marrazkiak eta antola itzazu nahi duzun ordenan. Pentsa ezazu nola garatuko den istorioa.

Aholkua: Sinopsiaren ideia ikasleei zabaltzen zaie komiki ezagun baten sinopsia elkarrekin bilatzean eta komikiaren bilbea edo ideia laburki kontatzean.



3 MARRAZKETA

Komiki bat marrazten hasteko, marraztu komikirako lauki-sare bat. Lauki-sareekin jolas daiteke: ez dute zertan erregularrak izan guztiek, ezta tamaina berekoak ere, eta ez da nahitaezkoa laukizuzenak izatea. Eragin handiagoa izateko, saia zaitzke bineta baten ingerada erabat marraztu gabe uzten. Zuek zeuek marraztu dezakezue komikiaren lauki-sarea, edo inprimatu egindako lauki-sarea (hiru bineta/sei bineta).

Komikia diseinatu eta marraztean, komeni da ikuspegi-angeluak eta irudiaren irismena pentsatzea: bineta batzuk ikuspegi zabal batetik egin daitezke. Adibidez, hiri-irudi handi bat, baso bat edo beste paisaiaren bat. Pertsonaiak ere urrutitik marraztu daitezke. Beste irudi batzuk, berriz, xehetasun handiko lehen planoak izan daitezke. Halaber,


pertsonaiak ez du zertan binetaren erdian egon beti, edo baliteke agertu ere ez agertzea.

Komiki baten jatorrizko tamaina argitalpenaren tamaina baino handiagoa izaten da. Besteak beste, bineta handiago batean leku handiagoa dago marrazteko eta xehetasun handiagoz egiteko, eta elkarrizketa-globoetako testua argiago idazteko. Gomendagarria da lehenik testua idaztea eta gero elkarrizketa-globoak marraztea.

Egin bineten eta elkarrizketa-globoen zirriborroa arkatzarekin. Amaitzeko, zure lana erreparasatu dezakezu punta fineko errotulagailu batekin eta pintzel batekin, eta irudiak eta binetak koloreztatu, nahi baduzu. Tresna bat baino gehiago probatzean, marrazteko zure modu gogokoena aurkituko duzu.

Aholkua:

Pentsatu istorioak nola egiten duen aurrera filmetan, adibidez. Zer edizio-mota erabili da? Nola laukiratu da irudia? Baliabide horiek berak ondo funtzionatzen dute komikietan ere.



Gainerakoen egile-eskubideak errespetatuko dira

Zeure komikian marrazten edo irudien argazkiak ateratzen dituzunean, egile-eskubideak sortzen dituzu haiengatik. Beste norbaitek egindako irudi edo marrazki bat erabili nahi baduzu, egilearen baimena behar duzu, oro har. Adibidez, komiki, marrazki edo bestelakoetako pertsonaiak egile-eskubideek babestutako obrak dira, eta, beraz, ezin dituzu kopiatu.

4 ARGITARATZEA ETA EBALUATZEA

Pentsatu non eta nola aurkeztu nahiko zenuketuen zuen komikia, non argitaratu beharko litzatekeen eta zergatik han.

Begiratu ea badituzuen erabiltzeko eta argitaratzeko behar diren baimen guztiak, obran beste norbaitek sortutako obrak erabili badira, hala nola irudiak edo testuak (Ikusi Laburpena: Komiki bat sortzea). Ikasleak elkarrekin komiki bat egiten ari badira, egokia da haiekin adostea nola partekatu ahal izango den lana. Adibidez, horietako batek komikia Interneten partekatu nahi badu, egile guztien baimena beharko du.

Azkenik, ebaluatu nola garatu ziren zeure trebetasunak lana egitean. Aztertu, halaber, nola jaso ditzakezun iruzkinak eta iradokizunak zeure lana hobetzeko.

Ataza-iradokizuna:

Egin ezazue zuen ikastaldeko komikien aldizkaria ikasleek sortutako komikiekin. Komikiekin erakusketa bat ere egin daiteke ikasgelan edo ikastetxeko korridorean.

Gogoratu baimena eskatu behar zaiela egileei komikiak argitaratzeko edo erakusteko.

